



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek Bizkaiko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko erakundeen arteko protokoloa berretsi dabe**

Bilbon, 2014ko martiaren 17an.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak, aho batez, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek joan dan zezeilaren 14an sinatu eben asmoen protokoloa berretsi dau gaur, Innobideak Kudeabide programaren bitartez Bizkaiko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko. Batzarretako taldeen aurrean egindako aurkezpenean, Imanol Pradales Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuak, euskal administrazioek, barrikuntzaren bitartez Euskadiko enpresen, eta batez be enpresa txikien eta ertainen, lehiakortasuna bultzatzeko daukien “alkarren arteko” helburua aitatu dau, “gaur egungo krisi testuinguruak dituan erronkei aurre egin ahal izateko eta euskal enpresek globalizazioan daukien etorkizuneko garapen lehiakorrerako oinarri sendoak finkatzeko”.

Programaren helburua enpresaren arlo guztietan kudeaketean hobetzea da, eta 3 milioi euroko haserako aurrekontuagaz sortzen da. Horreetatik 200.000 euro aurtengo ekitaldian inbertiduko dira. Programan izena emoteko epea apirilaren lehen zabalduko da, eta irailaren 30ean itxiko da. Diruz lagundu daitezkean jarduketak fase bitan garatuko dira. Lehenengoan, Euskalitek ebaluazioa eta egoeraren diagnostikoa egingo ditu. Eta bigarrean, aukeratutako enpresek “ekintza pilotuak” eta “finkatze proiektuak” jarri ahal izango ditue martxan, kanpoko kontsultoreen begiradapean.

### **BiDC-REN BALANTZEA**

Aldundiko arduraduna, berak eskatuta, Batzar Nagusien aurrean agertu da, Beaz foru soziedadeak Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council (BiDC) izenekoak sustatzeko aurrera daroazan jardueren barri emoteko. Pradalesek hiru “lorpen handitan” laburbildu dau BiDC-ek ia urte biko funtzionamenduan izan dauen aurrerapena: “sorkuntzaren eta diseinuaren arloetan aurrekaririk ez daukan” alkarlan publiko-pribadu ereduaren egituraketea, nazinoarteko proiektuak eta egitasmoak bultzatzen daben proiektuak.

Ia urte biko ibilpidean gauzatutako proiektuak sektore guztietakoak izan dira. Diseinuaren arloan, Pradalesek Industria Diseinuko Nazinoarteko Masterra eta industria diseinugileak alkatutako dituan materialen zentroa sortu izana azpimarratu ditu. Modaren arloan, moda ekoizpenerako zentro aurreratua sortu izana; eta ikus-entzunezkoen arloan, formatu lantegia eratu izana. Ganera, azpimarratutako proiektuen artean, aplikazio digitalen garapenean espezializatutako inkubadorea eta osasun arloan bideo-joko linea sortu izana dagoz.

Lorpenen artean, BiDC-eko kontseiluan 29 erakundeak –publikoak eta pribaduak– parte hartu izana be sartu behar da, eta baita sorkuntzaren inguruko Bizkaiko 200 enpresa baino gehiago batu dituan Foroa sortu izana be azpimarratu behar dira.

BiDC-ek koordinatu dituan eta nazinoartean proiektuak euki daben ekimenen artean, Diputatuak Diseinuaren Munduko Eguna, Nazinoarteko Select Azoka, Baward izenekoak,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Bilbao Art & Fashion eta Fun & Serious Game aitatu ditu.

## IBARZAHARRA INDUSTRIALDEA BARRIRO BULTZATZEA

EH Bildu Taldeak, bestalde, Pradales jaunaren batzorderatzea eskatu dau, Ibarzaharra industrialdea zein unetan dagoan ezagutzeko, koalizino abertzalearen esanetan “4 urte daroazalako geldirik, ez atzera ez aurrera”. Horrez gain, soziedade publikoaren gerentzian izandako aldaketa posibleei buruz be galdetu dau.

Imanol Pradales Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuak jakinarazo dau Sestaon dagozan Babcock Wilcox izandakoaren lurak izandakoei “balioa emotea” hurrago dagoala. 2013. urtearen bukaeran udaleko urigintza arloko aldaketeagaz eta lurreko kutsadurea garbitzeko obren lizitazioagaz, proiektua urbanizazino fasera hurreratzen dago.

2007ko azaroan Euskadiko administrazioek Ibarzaharra soziedadea sortzea bultzatu ebenetik joan dan urtarrilaren 30ean antolakuntzako epealdi barria iragarri arte, proiektu horrek jasan dituan zailtasunak gogoratu ditu Diputatuak. Antolakuntzako epealdi barri horretan, akzinoen %50 daukan Estaduko Sepides erakundeak proponidutako gerentzia egituraren aldaketea egin zan. Akzinoen beste erdia Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren, baktotxa %22,5agaz eta %5 daukan Sestaoko Udalaren esku dago.

Gerentzian izandako aldaketei jagokenez, Pradalesek azpimarratu dau Aldundiak ez dauela Gerente eta Gerentearen Alboko postu barrien inguruko “erabagirik hartu”, “ez daukalako soziedadearen kontrolrik, ezta erabagirik hartzeko moduko nagusitasunik be Kontseiluan”, baina esan dau “aldaketa zehatzak” dirala, eta “adostutako erabagiaren” ondorioz sartutakoak, proiektua geldituko ez daben akordioak bilatzea ezinbestekoa izan dalako.

## BIZKAIK TURISMORAKO DAUKAN ERAKARGARRITASUNA

Socialistas Vascos (PSE-EE) Batzarretako Taldeak be eskatu dau Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuaren batzorderatzea, Bizkaiko Lurraldea “turismorako erakargarritasuna galduz joan ez daiten hartuko diran neurriei buruzko” argibideak emon daizan. Javier García batzordekide sozialistak, Bizkaiko 150 hoteletatik 25 batzen dituan Destino Bilbao erakundeak egindako “gogoetea” gogoratu dau. Erakunde horrek “ekitaldien egutegi bakarra eta egoitza koordinauak ezartea eskatzen eban, bikoiztasunak saihesteko eta lehiakorragoak izateko”.

Hasteko, Pradalesek ezeztatu egin dau Lurraldea erakargarritasuna galtzen dagoanik, eta horretarako, azken urteetako turismoari buruzko datuak erabili ditu. Bere esanetan, 2006tik hona turisten joerea “gorakoa” izan da, eta 2012. urtea “historiako urterik hoberena izan zan”. Azken hamarkadan, sarreren eta bertan igarotako gauen hazkundera “%90etik gorakoa” da. Bere datuek erakusten dabenez, 2013. urtean nazinoarteko turismoaren marka guztiak gainditu ziran, 411.641 pertsona sartu ziran, eta holan, Bizkaia “Euskadiko turismoaren motor” bilakatu zan, Bizkaiko lurraldeak “Autonomia Erkidegoko sarreren %48 baino gehiago” jaso eban-eta.

Atzerritarrak bertara etorteko egiten dan behar horretan, sustapen ekitaldi bi egingo dira, orain denpora gitxi Berlinen egindakoaren antzekoak. Turkiak eta Finlandiak saskibaloiko munduko txapelketea Bilbon jokatuko dabenez, Aldundiak sustapen ekitaldi bat egingo dau maiatzean



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Istanbulen, eta ekainean beste bat Helsinkin. Bigarren seihilekoan, sustapenerako esfortzuak Frantzia eta Alemanian zentrauko dira, internet eta sare sozialen bitarteko kanpainak eginez. Kontuan izan behar da, Pradalesek gogoratu dauenez, Bizkaira datozan “10 bisitarietatik 9k”, euren bidaia plana sarearen bitartez egiten dauela.

Sustapenaren arloko datu eta barrikuntza horreek emon eta gero, Pradalesek, “konpondu bako arazoak” dagozala onartu dau. Horreen artean, erakundeen eta sektoreko enpresen arteko “koordinazino faltea azpimarratu dau. Esan dauenez, Bilbao Convention Bureauren barruan hori konpontzeko beharrea ari dira. “Pixkanaka-pixkanaka pausoak emoten ari dira”, baina autortu dau “ez dala erraza” ekitaldiak antolatzen dituen eragileen interes publikoak eta pribaduak uztartzea”.

#### EZEZKOA ARTISAUTZA ZENTROA SORTZEARI

Batzordearen saioan, ezezkoa emon jako PP alderdiak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bati. Bertan, artisautza zentro bat sortzea eskatzen zan, “sektorea sustatzeko eta bultzatzeko”. Gainerako taldeak ekimen horren kontra azaldu dira “ez datorrelako bat sektoreak eskatzen dauanagaz”.

#### GERNIKAKO MAHAI-TRESNEN SEKTOREA

Batzordearen bilerea Imanol Pradales jaunari zuzenduriko ahozko erantzun-eske bategaz amaitu da. Gernika inguruko mahai-tresnen sektorea bultzatzeko strategiaren barruan 2007. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak 19 milioi eurotan Jypsa enpreseari erositako lur-sail baten inguruko gorabeherak argitu daizala eskatu jako Diputatu jaunari.

Diputatuak erantzun dauenez, ekintza horri eta 2008an Gernikako mahai-tresnen sektore osoa Txaporta industrialdean dagoan enpresa bakarrean batzearen aldeko apustuari esker, Rohinter-Cantra Kantabriako enpresak, Gernikan egoan mahai-tresnen azkeneko enpresea erosi dau, eta konkurtso prozesuan egoan konpainia horretako “43 lanpostuei eutsi deutsez”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales ratifican el protocolo interinstitucional para impulsar la competitividad de las empresas vizcaínas**

En Bilbao, a 17 de marzo de 2014.

La comisión de Economía y Hacienda del Parlamento de Bizkaia ha ratificado hoy, por unanimidad, el protocolo de intenciones que el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales suscribieron el 14 de febrero para impulsar la competitividad de las empresas vizcaínas a través del programa Innobideak Kudeabide. En su presentación a los grupos junteros, el diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, se ha referido al objetivo “conjunto” de las administraciones vascas por impulsar esta competitividad a través de la innovación en las empresas vascas y, en particular, en las pymes, “para afrontar los retos que supone el contexto de crisis actual, así como para sentar unas bases sólidas para el desarrollo competitivo futuro de las empresas vascas en la globalización”.

El programa que pretende mejorar la gestión avanzada en todos los ámbitos de la empresa, nace con un presupuesto global de 3 millones de euros, de los que 200.000 euros se invertirán en el presente ejercicio. El plazo para apuntarse a este programa se abrirá el 1 de abril y se cerrará el 30 de septiembre. Las actuaciones subvencionables se desarrollarán en dos fases. En la primera, Euskalit realizará una evaluación y un diagnóstico de la situación. Y, en la segunda, las empresas seleccionadas podrán poner en marcha “acciones piloto” y “proyectos de consolidación” bajo la supervisión de consultores externos.

### **BALANCE DEL BiDC**

El responsable foral comparecía, a petición propia, en las Juntas Generales para informar de las actividades de la sociedad foral Beaz en lo que concierne a la promoción del Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council (BiDC). Pradales ha resumido en tres “grandes logros” el impulso del BiDC en sus casi dos años de funcionamiento: la articulación de un modelo de colaboración público-privado “sin precedentes en el ámbito de los sectores de la creatividad y el diseño”, la proyección internacional y diferentes proyectos tractores.

Los proyectos desarrollados en este periodo se han adscrito a todos los sectores. En el ámbito del diseño, Pradales ha destacado la creación de un Máster Internacional de Diseño Industrial y la creación de un centro de materiales que reúna a la industria y a los diseñadores. En el ámbito de la moda, la creación de un centro avanzado de producción de moda y, en el campo audiovisual, la creación de una fábrica de formatos. Asimismo, entre los proyectos a destacar se incluyen una incubadora especializada en el desarrollo de aplicaciones digitales y la creación de una línea de videojuegos en el sector de la salud.

Entre los logros se encuentran también la participación de 29 organizaciones -públicas y privadas- en el consejo del BiDC y la creación de un Foro en el que se han incorporado ya más de 200 empresas de Bizkaia pertenecientes a las industrias creativas.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Entre las iniciativas coordinadas por el BiDC con proyección internacional, el diputado ha citado el Día Mundial del Diseño, la Feria Internacional Select, los Bawards, el Bilbao Art & Fashion y el Fun & Serious Game.

#### RELANZAMIENTO DEL PARQUE INDUSTRIAL IBARZAHARRA

Por otro lado, EH Bildu ha interrogado al diputado de Promoción Económica para conocer el momento en el que se encuentra el parque industrial Ibarzaharra, “parado desde hace cuatro años”, según la coalición abertzale, y sobre los posibles cambios experimentados en la gerencia de la sociedad pública.

El diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha informado de que la “puesta en valor” de los antiguos terrenos de la Babcock Wilcox en Sestao está más cerca. Con la aprobación de los cambios urbanísticos municipales a finales de 2013 y la licitación de las obras de descontaminación de los terrenos, el proyecto se acerca a la fase de urbanización.

El diputado ha hecho un repaso de las dificultades que ha sufrido el mismo desde que las administraciones vascas impulsaran la creación de la sociedad Ibarzaharra en noviembre de 2007 hasta que la sociedad anunciara el pasado 30 de enero un nuevo periodo organizativo con un cambio en la estructura gerencial a propuesta del ente estatal Sepides que es la que controla Ibarzaharra con el 50% del accionariado. La otra mitad está en manos de la Diputación y el Gobierno Vasco, con un 22,5% cada una, y el ayuntamiento de Sestao, con un 5%.

En referencia a los cambios en la gerencia, Pradales ha insistido en que la Diputación “no ha adoptado decisión” en torno a los nuevos puestos de Gerente y Gerente Adjunto “porque no tiene el control de la sociedad, ni la mayoría en el Consejo para decidir”, aunque se ha referido a ellos como “cambios concretos” y “decisión consensuada” por la necesidad de buscar acuerdos que no paralizasen el proyecto.

#### ATRACTIVO TURÍSTICO DE BIZKAIA

El grupo juntero Socialistas Vascos (PSE-EE) solicitaba también la presencia del diputado de Promoción Económica para que explicase las “iniciativas” que se iban a poner en marcha en el territorio para que Bizkaia “no siga perdiendo atractivo turístico”. El apoderado socialista Javier García, ha recordado en la comisión una “reflexión” de la organización Destino Bilbao –entidad que agrupa a 25 hoteles vizcaínos de un total de 150- que pedía “fijar un calendario único de eventos y unas sedes coordinadas para evitar duplicidades y ser más competitivos”.

Pradales ha comenzado negando que el Territorio esté perdiendo atractivo y para ello se ha apoyado en los datos turísticos de los últimos años. Según él, la tendencia de turistas desde el año 2006 viene siendo “al alza”, situándose el 2012 como “el mejor año de la historia”. En la última década, el crecimiento de entradas y pernoctaciones se situaría por “encima del 90%”. Según sus datos, el año 2013 batió el récord de turismo internacional con la entrada de 411.641 personas, lo que convirtió a Bizkaia en el “motor del turismo vasco”, ya que el territorio vizcaíno registró “más del 48%” de entradas de la Comunidad Autónoma.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

En este trabajo por impulsar la llegada de extranjeros, se circunscriben dos próximos actos de promoción como el desarrollado recientemente en Berlín. Aprovechando que Turquía y Finlandia jugarán en Bilbao el Mundial de baloncesto, la Diputación realizará en mayo un acto promocional en Estambul y, en junio, acudirán a Helsinki. Durante el segundo semestre los esfuerzos promocionales se centrarán en Francia y Alemania con el desarrollo de campañas por internet y redes sociales, ya que “9 de cada 10 personas” que visitan Bizkaia hacen su plan de viaje a través de la red, ha recordado Pradales.

Tras ofrecer estos datos y las novedades en el capítulo promocional, Pradales ha admitido que quedan “cuestiones que resolver” entre las que ha subrayado la "mejora de la coordinación" entre las instituciones y empresas del sector en el terreno de los eventos, algo en lo que se viene trabajando en el seno de Bilbao Convention Bureau. “Poco a poco se están dando pasos”, aunque -ha admitido- que “no es sencillo conjugar” los intereses públicos y privados de las distintos agentes que organizan eventos.

#### RECHAZO A LA CREACIÓN DE UN CENTRO ARTESANO

En la sesión, se ha rechazado una proposición no de norma presentada por el PP en la que se pedía la creación de un centro artesano que permitiera "impulsar y dinamizar" el sector. El resto de grupos se ha negado a apoyar una pretensión que “no se corresponde con lo que demanda el sector”.

#### SECTOR CUBERTERO DE GERNIKA

La comisión ha concluido con una pregunta oral del PP para que Pradales aclarase algunos aspectos relacionados con la compra, en el año 2007, de unos terrenos a la empresa Jypsa por 19 millones de euros, dentro de una estrategia para impulsar el sector cubertero de la zona de Gernika.

El diputado se ha felicitado de que gracias a esta acción y a la apuesta por aglutinar en una sola empresa al sector cubertero de Gernika en el polígono Txaporta. en el año 2008, ha sido posible que, recientemente, la empresa cántabra Rohinter-Cantra haya adquirido la última empresa de Gernika del sector cubertero, y haya mantenido “los 43 puestos de trabajo” de esta compañía que estaba en proceso concursal.